

Ipar Itsasoko bakailao-kalak agortzeaz

Eskoziako, Islandiako eta Kanadako iker-tzaile batzuek egini-ko azterketa baten arabera Ipar Itsasoko bakailao-kalak agortzeaz egon daitezke eta lehen Kanadakoei eta Islandiakoei gertatutakoa jazo dakieke aurki. Azterketa *Nature* aldizkari ospetsuaren otsailaren 6ko alean argitaratu da. Ipar Itsasoko bakailaoa arrantza-presio handia pairatzen ari da, estokaren % 60 harrapatzen baita urtero. Ikertzaileek oraingo arrantza-errejimena ea eramangarria den aztertu dute eta ez dela ondorioztatu dute. Bi faktorek baldintzatzen dute arrantza-errejimenaren eramangarritasuna: batetik, ugaltzeko gai den arrain-kopuruaren eta jaiotako arrainen arteko erlazioak eta, bestetik, arrainen hilkortasun-tasak. Hilkortasun-tasak jaiotze-tasa gaintzen duenean kalaren iraupena arrisku biziartzen da.


Ikertzaileek diotenez, bakailao-populazioaren berezko joerak kontuan hartu gabe egiten da arrantza Ipar Itsasoan. Horrela segitzekotan, aurki desagertuko omen da bertatik bakalaoa.



Bakailaoaren arrantza kontu handiz hartu behar den faktorea arrainen adina da. Bakailaoak bizitza nahikoa luzea du eta ondorioz, heldutasun sexuala lau urte izan arte ez du lortzen. Bestetik, gazte-gaztetik arrantzatzen dira bakailaoak eta egun, urtebetetik gorako arrainak sarekatzen ari dira. Ikusienez, urtebeteko bi bakailaoetatik bat arrantzatzen da. Beraz, bakailaoen hilkortasun-tasa oso handia da eta ugaltzeko heldutasunera oso ale gutxi iristen da, jaiotako % 4 soilik, hain justu. Ikertzaileek, ondorioz, arrantza-kuota murrizteko neurri gogorrak har daitezkeen proposatzen dute, baldin eta Ipar Itsasoko kala iraungitzea nahi ez bada.

Poluitutako basoak

Landare-espezie gutxiak ez dira poluzioaz kaltetuta ateratzen. Frantzia esate baterako Inra erakunde-ko hiru laborategik (Bordeleko bioklimatologia-koak, Nancy-ko baso-ekologia-koak eta Orsay-ko landare-ekologia-koak) ikusi dutenez, lurralde epeletako zuhaitzen enborra asko loditu da. Neurketa dendrokronologikoek diotenez, 1850. urteaz gero haritz kandudunak % 55 gehiago loditzen dira Lorenan eta pinua % 160 gehiago Vosgeetan. Horren arrazoia batez ere atmosfer-




Askok uste dutenaren kontra, poluzioak ez die landare-espezie guztiei berdin eragiten. Basogintzarako oso baliogarriak izango dira datu berri horiek.

ran CO₂ gehiago egotea da. Nitrogeno oxidoak, nitratoek, amoniakoak eta beste poluitzaile batzuek ere zerikusia dute eta horrez gain agian klimaren aldaketa ere kontuan hartu beharko da (klima berotzea eta prezipitazio gehiago izatea) basogintza behar bezala kudeatzeko.

Arizonako antilopeak arriskuan

EEBBetako Itsas Armadaren erakundeak talde ekologista batek jarritako auziari aurre egin behar-ko dio hurrengo hilabeteetan. Pilotu-praktikak desagertzeaz dagoen antilope-mota arraro bat bizi den desertuan egiten ari dira eta ekologisten arabera, iharduera honek animalien bizia arriskuan jartzen du. Arizonako Sonora desertuan 100 *pronghorn* antilope bizi dira eta mota honetako beste 300

daude Mexikon. I haz Defenders of Wildlife taldea Sonoran burutzen diren lehergailuen ez-tandak geldiarazten saiatu zen, baina Armadak bere ohizko ariketak egin zituen. Ekologistek argudiatzen dutenez, soinuak animaliak estresatu eta ikaratu egiten ditu eta oreinkumeak, ihes egitean, beraien amengandik banatuta gelditzen dira. 1994ko amaieran 22



Arizonako Sonora basamortuan egiten dituen pilotu-praktikak direla eta, EEBBetako Armadak arriskuan jarri du bertan bizi den antilope-mota baten biziraupena.

pronghorn antilopeei koi-lare batzuk jarri zizkieten eta hauetatik zortzi baino ez dira bizi gaur egun. Itsas Armadak ez dio jaramon handirik egin datu hauei. Bozeramaile batek esan duenez, pilotu-praktikak ingurugiroaren osotasunerako onak dira, honek esker erre-serba honetan ez direlako industri-iharduera poluitzaileak martxan jarriko.

